

## ALDE ZAHARREKO BILTEGIAK

### Arkitektura

Donostiako Alde Zaharra, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) berrikuspenaren arabera, ERDIALDEa hirigintza-eremuaren zati da, zehazki, ALDE ZAHARRA 03 deritzona. Haren antolamendu xehatuko lerro orokorrek, a.10 lurzatiak katalogatzen ditu, Hirigune historikoko bizitegi-zonako lurzati gisa.

Hirigintza-arau partikularra kontsultatu da, honako gai hauei dagokienez:

*Kalifikazio globala: erabiltzeko baldintza orokorrak dira Plan Orokor honetan («2.1. Hirigintza Arau Orokorrak» dokumentua ezarritako A.10 tipologiako zona globalekoak.*

*Kalifikazio xehatua: antolatuko azpizona xehatuen erabilerarako baldintza partikularrak Plan Orokor honetan esparru horretarako antolatutako azpizona xehatu bakoitzerako zehaztutakoak izango dira.*

Indarrean dagoen HAPOren Hirigintza Arauetan (HA) jasotako «Hirigintza-erabileren edukiari» buruzko artikulua arabera, «**industria-erabilerak**» dira, besteak beste, produktuak kontserbatzeko, gordetzeko eta banatzeko erabiltzen diren biltegiak—xehekari, handizkari, instalatzaile edo banatzaileak soilik hornitzen dituztenak—; eta baztertuta dago jendeari zuzenean saltzea.

«A.10 Hirigune historikoko bizitegi zona» eremu globalaren eraikuntzako, erabilerako eta jabariko erregimen orokorraren artikulua honela definitzen du eremua:

*Berezitasuna eta interes historikoa, kulturala eta hirigintza alorrekoa kontuan harturik, iraunarazi nahi diren alde zaharreko edo hirigune historikoko morfologia duten bizitegi-kokaguneen presentziak batik bat taxutzen duen zona.*

*Erabilera-erregimen orokorrari dagokionez.*

*Zona honen erabilera-erregimen orokorra honako aurreikuspen hauen emaitzazkoa da:*

*A.- Erabilera bereizgarriak: bizitegi-erabilerak.*

*B.- Erabilera bateragarriak:*

*\* Bizitegi lursailetan: batetik, «a.10 Hirigune historikoko bizitegi-lursailetan» (zona global horretako bereizgarriak) eta, betetik, hala badagokio, zonan antolatzen diren aurrekoaz bestelako tipologiako bizitegi-lursailetan Plan Orokor honek oro har baimendutako erabilerak.*

*(.....)*

Era berean, «a.10 Hirigune historiko bizitegi-lursailetako» eraikuntza, erabilera eta jabariko erregimen orokorrari buruzko artikuluan, lurzatia honela deskribatzen da:

*Antzinako bizitegi-kokaguneei dagozkien azpizonak edo lursailak. Berezitasuna eta interes historikoa, kulturala eta hirigintza alorrekoa kontuan harturik iraunarazi behar diren eraikuntzek, eta hala badagokio, berezitasun hori ez dutelako ordezkatu daitezkeen beste batzuek okupatzen dituzte. Ordezkatuz gero, eraikuntza berria bizitegi-kokagune horien berezko baldintza orokorretara egokitu beharko da.*



(.....)

*G.- Industria-erabilerak*

Biltegi-erabilera industria-erabileren barruan sartzen da. Industria-erabilerei dagokienez, honako hau xedatzen da:

*Oro har, ezarpena baimentzen da 1. eta 2. kategorietan, behe-solairuan edo sotoko lehen solairuan bakarrik eta sarbide berezia badute.*

Bestalde, Hirigintza Arauetako 9. artikulua araberan, 2., 3. eta 4. kategoriako merkataritza-erabilerekin parekatuta daude 1. edo 2. kategoriako industria-erabilerak. Eta erabilera asimilatu horiek merkataritza-erabileren kategoria horietara nagusiki bideratzen diren lurzati eta lokaletan ezartzea baimentzen da, horietarako eskatzen diren baldintza berberetan.

Indarrean dagoen HAPOaren Hirigintza Arauetan bizitegi-erabileretako (a. lurzatiak) solairu ezberdinetarako baimendutako erabilerak ezartzeko erregimen orokorrari buruzko artikulua horrek honako hau xedatzen du:

**1.- Sotoko lokalak erabiltzeko baldintzak.**

*Bizitegi-erabileren zein lursailean baimendutako gainerako erabileren erabilera erantsi eta osagarrietara besterik ez dira zuzenduko —aparkalekuak; trastelekuak; eraikinaren eta bertako lokalen eta etxebizitzaren zerbitzurako instalazioak; beste erabilera osagarri batzuk—, kasu bakoitzean eragindako lursailetan, bertan kokatuta egon zein beste batean egon.*

*Aparkaleku kopuru minimo baten zuzkidura ezartzen bada, eta sotoko solairuetan kokatzea aurreikusten bada, behin zentzu horretan ezarritako hornikuntza egiteko beharrezkoa den azalera erreserbatu eta bermatu eta gero, bestelako erabilerak ezarri ahal izango dira, jarraian adierazten diren irizpideen arabera betiere:*

*A.- Erabilera nagusien ezarpena baimentzen da (hirugarren sektoreko erabilerak eta ekipamendukoa, baita horien erabilera osagarriak ere), honako baldintza hauetan:*

*a) Eraikuntza bereko goi-solairuetan baimendutako izaera bereko beste erabilera batzuk zabaldu edo osatzeko.*

*Sotoko lehen solairurako bakarrik balio du baimenak. Salbuespen moduan, komeni dela eta egokia dela justifikatu eta gero, hiri-plangintzak —nahiz Plan Orokor honek nahiz berak finkatutako edo bere garapenean sustatutako plangintza xehatuak— sotoko beste solairu batzuetan ezartzeko baimena eman dezake.*

*b) Erabilera autonomo eta bereizi gisa, indarrean dagoen hiri-plangintzan espresuki aurreikusten diren kasuetan (bai Plan Orokor honetan, bai plan hau finkatzen duen plangintzan, bai plan honen garapenean sustatzen den xehetasun-azterlanean). Testuinguru horretan, plangintza horrek xehetasunez identifikatu beharko ditu erabilera horretara zuzentzen diren solairu horren zatiak edo zatia. Edozein modutan, zuzenean komunikatuta egongo dira kanpoaldearekin; komunikazio hori ez da eraikuntzaren sarbide komunaren bitartez egingo.*

*Kasu horretan, 59. artikulua barne hartzen ditu baimendutako hirugarren sektoreko erabilerak eta ekipamendukoak eta bertan adierazitakoaren arabera eta irismenarekin jokatuko da.*

*c) Aipatutako erabilerak baimentzeko nahitaez beteko dira, edozein kasutan, esparruan indarrean dauden lege-xedapenetan, eta, batez ere, horien baimentzea arautzen dutenetan (udal-ordenantzak, eta abar) ezarritako baldintza orokorrak eta berariazkoak (bizigarritasuna, irisgarritasuna eta abar).*

*d) Horrelako erabileretarako lokalen eta espazioen tamainari dagokionez, bestalde, hiri-plangintzan ildo horretan ezarritakoez gain, kontuan hartuko dira segurtasun, sute eta abar bezalako esparruetan indarrean dauden lege-xedapenetan barne hartutako aurreikuspenak.*

*B.- Oro har, eta jarraian adierazitako salbuespenen kalterik gabe, erabilera horiek sotoko lehen solairuan bakarrik ezarri ahal izango dira.*

*Salbuespen moduan, komeni dela eta egokia dela justifikatu eta gero eta aipatutako hiri-plangintzak aurreikusten bada, sotoko beste solairu batzuetan ezartzeko baimena eman daiteke.*

*C.- Oro har, jendeari zerbitzatzeko jarduerak edo pertsonak bertan etengabe egotea eskatzen duten jarduerak sestra gaineko solairuetan ezarriko dira. Horrez gain, horrelako jarduerak sotoko aipatutako solairuan ezarri ahal izango dira, betiere segurtasun, sute, eta abar bezalako esparruetan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako neurriak betetzen direla justifikatzen bada eta, ondorioz, pertsonentzako inolako arriskurik ez dagoela bermatzen bada.*

*D.- Plan Orokor hau onartu aurretik zeuden jarduerak finkatzen dira, betiere aurretik adierazitako baldintza guztiak edo batzuk urratuta ere, honako irizpide hauekin bat egiten badute: ezarri ziren garaian indarrean zegoen hiri-plangintzan egindako aurreikuspenen arabera egin izana ezarpena, kasuan kasu administrazio-baimenak —udal-lizentziak barne— lortu eta gero; esparruan indarrean dauden lege-xedapenetan—jardueren ezarpena arautzeko udal-ordenantzak barne— berariaz egindako aurreikuspenekin bat egitea; indarrean dagoen hiri-plangintzaren arabera antolamenduz kanpoko egoeran ez egotea edo desadostzat ez jotzea.*

## **2.- Sotoko lehen solairuko lokalak erabiltzeko baldintzak**

*Ondoren azalduko diren salbuespenen kalterik gabe, bizitegi-erabileren zein lursailean baimendutako gainerako erabileren erabilera erantsi eta osagarrietara besterik ez dira zuzenduko —aparkalekuak; trastelekuak; eraikinaren eta bertako lokalen eta etxebizitzaren zerbitzurako instalazioak; beste erabilera osagarri batzuk—, kasu bakoitzean eragindako lursailetan bertan kokatuta egon zein beste batean egon.*

*Aparkaleku kopuru minimo baten zuzkidura ezartzen bada, eta sotoko solairuetan kokatzea aurreikusten bada, behin zentzu horretan ezarritako zuzkidura egiteko beharrezkoa den azalera erreserbatu eta bermatu eta gero, aurreko 1. idatz zatian aipatutako gainerako erabilerak ezarri ahal izango dira, bertan adierazten diren irizpideen arabera betiere.*

*Gainera, salbuespen gisa, etxebizitza-erabilera dokumentu honen 59. artikuluko "2.1.A" idatz-zatian azalduko baldintzetan ezartzea baimentzen da*

## **3.- Behe-solairuko lokalak erabiltzeko baldintzak.**

*Behe-solairuan kokatutako lokalak nagusiki hirugarren sektoreko eta ekipamenduko erabileretara zuzenduko dira, baita etxebizitzaren erabilera osagarrietara eta bizitegi-lursailen berezkoak diren gainerako erabileren erabilera osagarrietara ere, hala eraikuntza horretan bertan nola besteren batean kokatuta badaude ere.*

*Dena den, oro har eta jarraian aipatzen den salbuespenaren kalterik gabe, debekatuta dago ibilgailu motordunak aparkatzeko erabilera «a.10. Hirigune historikoko bizitegiko» eta «a.20. Zabalguneko bizitegiko» tipologiako eraikuntzetako behe-solairuan, eta baimendu egiten da «a.30. Eraikuntza irekiko bizitegiko» eta «a.40. Garapen txikiko eraikuntza bizitegiko» tipologiako eraikuntzetako behe-solairuan». Aipatutako salbuespena lotuta dago 59. artikularen «2.1.C.a» atalean aipatutako kasuetan lehen bi bizitegi-tipologiaren behe-solairuan aipatutako erabileraren baimentzearekin.*

*Ibilgailu motorgabeak (bizikletak, gurpil-aulkiak, motordunak barne, etab) aparkatzeko erabilera baimenduko da bizitegiko eraikuntza-tipologia horietako guztietako eraikuntzetako behe-solairuan.*

*Bestalde, sostengu duten lurzoruari karga handiak transmititzen dizkieten instalazioetako elementu teknikoak —biltegiak; igogailuen makineriak; galdara-gelak; eta abar— lurrean bertan, sotoetan ezarriko dira lehentasunez, betiere kasuan-kasuan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako irizpideen arabera halakorik egin badaiteke.*

Jardueren Atal teknikoa  
Sección Técnica de Actividades

San Martín 48 - Tel. 943481000 - Faxa 943481144 - www.donostia.org  
20003 Donostia-San Sebastián

Arestian azaldutakoa oinarri hartuta, **Alde Zaharrean industria-erabilerak ezar daitezke 2. kategoriara arte, beheko solairuan edo sarbide independentea duten erdisotoetan (sarbiderik ez bizitegi-eraikin baten ataritik).**

**Lokalaren azalerari** dagokionez.

***Merkataritza-lokalen batez besteko azalerak, lursail bakoitzean, 40,00 m<sup>2</sup>(e) baino handiagoa izan beharko du.** Lokal horietarako baimendutako azalera erabilgarri minimoa 25,00 m<sup>2</sup>(e) da. Xede horrekin, sestra gaineko azalera bakarrik hartuko da kontuan, Plan Orokor honetako Hirigintza Arau Partikularretan zein berau garatzeko sustatzen den plangintzan berariaz bestelako aurreikuspenik egiten bada izan ezik.*

Hala ere, azalera txikiagoa duten lokalak onartuko dira, baldin eta justifikatzen bada lokal horiek 1995. urtea baino lehen eratu direla (lokalen gutxieneko azalera zehazten duen HAPOa onartu zen eguna) edo finkatuta daudela dagokion udal-lizentzia dutelako.

**Altuerari** dagokionez.

Biltegi-lokal berriek **gutxienez 2,10 metroko altuera** librea izan behar dute (Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 8. artikulua), baldin eta bertan ez badago pertsonarik edo lantokirik modu iraunkorren.

Hala ere, 1944ko Udal Ordenantzak aplikatzen zaizkien lokalei **gutxienez 2,00 metroko** altuera librea eskatu ahal izango zaie.

**Suteen aurkako babesa**

Printzipioz, CTE-DB-SI da aplikagarria, merkataritza-erabilera batera aplikatuz.

Biltegiko bolumenaren edo biltegitratutako materialaren arabera zehaztu behar da su-karga, arrisku bereziko lokalak diren ala ez jakiteko (CTE DB SI 1.2).

Horretan oinarrituta, egituraren eta paramentuen suarekiko erresistentzia zehaztu behar dira. EI 120 eta R120 (printzipioz).

Hori kontuan hartuta biltegi txikiak direla.

Bestela, 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-erregelamendua onartzen duena, aplikatu beharko litzateke. Baina ez dut uste hori izango denik kasua.

**Ingeniaritza**

- Sustatzaileak hala erabakitzen badu, jarduera egunez bakarrik erabil daiteke.

Jardueren Atal teknikoa  
Sección Técnica de Actividades

San Martín 48 - Tel. 943481000 - Faxa 943481144 - www.donostia.org  
20003 Donostia-San Sebastián

- Jarduera gauez erabiltzen bada (noizbehinka bada ere), inpaktu akustikoa duen jardueratzat joko da.

Kasu horretan, airetiko zaratarekiko eta inpaktuarekiko isolamendu akustikoaren mailak betetzea eskatuko da gaueko jardueretarako, Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko Udalaren jokabide arautzen duen ordenantzak (GAO, 89. zk., 2022-05-12koa) eta 213/2012 Dekretuan (EHAA, 222. zk., 2012-11-16koa) xedatutakoak.

Lokaleko ateak eta leihoak 22:00etatik aurrera itxi beharko dira nahitaez, Zara eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko Udalaren jokabidea arautzen duen ordenantzan xedatutakoaren arabera (GAO, 197. zk, 2000-10-17koa). Horregatik, aireztapen behartuko sistema bat instalatu beharko da, emaria eta aire-berritzeak egokituz eta gaueko ordutegian edozein bao edo kanpoaldera ematen duen edozein leiho erabat ixtea ahalbidetuz.

- Aireztapen-sistemek kanpoaldea sortzen dituzten maila akustikoak bat etorriko dira Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko Udalaren jokabidea arautzen duen ordenantza (GAO, 89. zk., 2022-05-12koa).

- Ateak eta/edo pertsiak bibrazioen aurkako gailu egokiak erabiliz lotu beharko dira egiturara, eta isilak izan beharko dira.

## Osasuna

### LAGUNTZA-BILTEGIA:

saltokiaren titulartasun bereko lokala edo establezimendua, jendearentzat itxita dagoena.

Base legal: Abenduaren 13ko 1021/2022 Errege Dekretua, zeinaren bidez txikizkako merkataritza saltokietan elikadura produktuak ekoitzi eta merkaturatzeko higie-baldintza zehatzak arautzen diren.

### EZAUGARRI OROKORRAK

Lokalen antolaera, diseinua eta eraikuntza erraz eta egoki mantentzeko, garbitzeko eta/edo desinfektatzeko modukoa izan beharko da.

Elikadura-produktuetarako lokalen antolaketa, diseinua eta eraikuntza erraz eta egoki mantentzeko, garbitzeko eta/edo desinfektatzeko modukoa izan beharko da, zikinkeria pilotzea saihestuko dute, material toxikoak ukitzea, elikagaietan partikulak jalkitzea, aireak transmititutako kutsadura ahalik eta txikiena izatea (hautsa, kea, etab.) eta gainazaletan kondentsazio edo lizuna sortzea.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua. II. ERANSKINA I. KAPITULUA. 2, a) b) c) puntua

Lokalen proiektzioa eta diseinua nahi ez diren eta ingurunea kutsatzen duten animaliak sartzea eragozteko modukoa izan beharko da. Kontuan hartuko da eraikinak eta instalazioak nahi ez

Jardueren Atal teknikoa  
Sección Técnica de Actividades

San Martín 48 - Tel. 943481000 - Faxa 943481144 - www.donostia.org  
20003 Donostia-San Sebastián

diren animaliak sartzea eragozteko moduan proiektatzea eta, bereziki, bertan izurriteak kontrolatzea.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua. II. eranskina: I. KAPITULUA. 2.c puntua

Aurreko puntuetan jasotakoez gain, lokalen tamaina nahikoa izango beharko da xede duten erabilerarako.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua. II. ERANSKINA I. KAPITULUA. 2 a) b) c) puntua

Hormen, zoruen, sabaien, ateen eta leihoen barne-egiturak garbitzeko eta desinfektatzeko errazak diren materialekin eraikita eta mantenduta egon beharko dira. Elikagai-establezimenduen lokalen edo eremuen barne-egiturei dagozkien baldintza orokorrak beste era batera kalifikatuko dira (kritikoa, serioa eta arina), honako hauei dagokienez: A.- lokal/eremu garrantzitsuak edo B.- garrantzitsuak ez diren lokalak/eremuak.

Elikagai-instalazioen barruko egiturak erraz garbitzeko eta, beharrezkoa izanez gero, desinfektatzeko materialekin eraikita egon beharko dira.

Zoruen gainazalak material iragazgaitz, ez-xurgatzaile, garbigarri eta ez-toxikoekin eraikita egon beharko dira.

Hormen gainazalak material iragazgaitz, ez-xurgatzaile, garbigarri eta ez-toxikoekin eraikita egon beharko dira; haien gainazalak leuna izan beharko du, egin beharreko lanetarako altuera egokiraino.

Sabaiak, sabai aizunak eta gainerako instalazio esekiak zikinkeria eta kondentsazioa pilotzea eta partikulak askatzea eragozteko moduan eraikita eta proiektatuta egon beharko dira. Erraz garbitzeko modukoak izan beharko dira.

Leihoak erraz garbitzeko modukoak izan beharko dira, eta zikinkeria ahalik eta gutxien metatzeko moduan eraikita egon beharko.

Ate guztiek gainazal laua eta ez-xurgatzailea izan beharko dute, eta erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izan beharko dira. Itxiera doitua izan beharko dute.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua, II. ERANSKINA. II. KAPITULUA 1 a) b) c) d) e)

Udal-sareko ur hotz eta bero kontrolatua eduki behar da garbiketa- eta desinfekzio-lanetarako. Gainera, eskuz eragiten ez den eskuak garbitzeko konketa bat izan beharko dute, baita ur hotza eta beroa, xaboia eta eskuak higienikoki lehortzeko sistema bat ere.

Establezimenduak bere jarduerarekin eta garbiketa-sistemarekin bat datozen hustubide-sistemak eduki beharko ditu. Sistema horrek behar den kopurua eta kokapen egokia eduki beharko ditu, ohiko jardueran edo garbiketa-lanen ondoren zoruan putzurik edo ur-pilaketarik sor ez dadin. Hondakin-urak husteko sareak eduki beharko ditu, behar den kantitatean eta kokapen egokian, zoruan putzurik edo ur-pilaketarik sor ez dadin, hain zuzen ere ohiko jardueran edo garbiketa-lanen ondoren kutsadura-arriskua eragin dezaketenak.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua, II. Eranskina, 1. Kapituluua, 8. puntua.

Argiaren intentsitatea nahikoa izan beharko da, eta lokal desberdinetan egiten diren lanen ikusmen-eskakizunak bete beharko ditu.

Aireztapena nahikoa eta egokia izan beharko da, egindako jarduera kontuan hartuta, eta eremu garbietatik abiatuta berritu beharko da airea.

Jardueren Atal teknikoa  
Sección Técnica de Actividades

San Martín 48 - Tel. 943481000 - Faxa 943481144 - www.donostia.org  
20003 Donostia-San Sebastián

Beharrezkoa izanez gero, establezimenduak bere jarduerarako beharrezkoak diren hozteko instalazioak eduki beharko ditu, eta horien edukiera lan-bolumenaren arabera izan beharko da. Establezimenduak bere jarduera-motarekin bat datozen hozteko instalazioak izan beharko ditu, eta edukiera (biltegitratze-tamaina/-espazioa) lan-bolumenaren arabera izan beharko da; horrela, enpresan hozte- edo izozte-tenperaturan egon beharreko produktu oro baldintza horietan biltegitratu beharko da. Balorazio horretan, kontuan hartuko da ekipoen fabrikatzaileak zehaztutako karga-mugarik duten (adibidez, erakustokiak, irlak), eta biltegitratutako eta erakusgai jarritako elikagaiak ez dituztela muga horiek gainditzen. Base legal: 852/2004 Erregelamendua, II. eranskina, I. kap. 2.d) puntua, IX. kap.

Temperatura erraz ikusteko eta egiaztatzeko moduko irakurketa-sistemak eduki beharko ditu. Hozteko instalazio orok irakurtzeko, ikusteko eta iristeko moduko sistema bat izan beharko du, elikagaiak tenperatura egokian biltegitratzen direla egiaztatzeko. Ikuskapena egiten denean, ikuskatzaileak honako hau egiaztatuko du: hozteko instalazioaren bisorean markatutako tenperatura hark hartutakoaren antzekoa dela (zuzenean tenperatura neurtuz), eta elikagaiak tenperatura egokian mantentzen direla. : Lege-oinarria: 852. artikulua. II. eranskina; I. kap. 2 d) puntua. V. kap., 2. puntua.

Beharrezkoa izanez gero (biltegitratze jardueraren arabera), higiene zerbitzuak eta aldagelak eduki beharko ditu, ezarritako irizpideen eta establezimenduaren beharren arabera. Manipulatzaileentzako bakarrik izango dira. Horiek establezimenduaren beharren arabera izan beharko dira.

Komun-lokala ezingo da egon elikagaiak manipulatzeko edo biltegitratzeko eremuekin komunikatuta.

Aldagelek eskuak garbitzeko konketak eta armairuak izan beharko dituzte, langileak arropaz aldatu ahal izateko, betiere establezimenduaren beharren arabera. Aldagela langileen higiene-zerbitzuetako komun-aurrekoa edo lokal independente bat izan daiteke. Nolanahi ere, eskuak garbitzeko konketak eta armairu indibidualak izan beharko dituzte langile bakoitzarentzat, eta kaleko eta laneko arropa eta oinetako guztiak bereizita eta modu ordenatuan gordetzeko tamaina eta edukiera nahikoa izan beharko dute. Eskuak garbitzeko konketa, ahal dela, aldagelan jarri beharko da.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua. II. eranskina, I. kapitulua, 9. puntua.

Garbiketako produktuak eta tresnak isolatuta biltegitratu beharko dira, elikagaietatik bereizita eta isolatuta, eta horretarako bakarrik erabiltzen den eremu batean. Manipulazio-eremuan ezingo da elikagaiak kutsa ditzakeen substantzia toxikorik egon, higiene-arrazoiengatik beharrezkoa denean izan ezik.

Lege-oinarria: 852/2004 (EE) Erregelamendua. II. ERANSKINA I. KAPITULUA. 10. puntua. Ordena

Karraskariak eta hegaztiak ez sartzeko eta intsektuen kontrako sistema eraginkorrak eduki beharko dira. Establezimenduak intsektuen kontrako sistema ez-kimikoak izan beharko ditu. Kanpoalderako irekidurek, hala nola ate eta leihoek, intsektuak, karraskariak eta hegaztiak ez sartzeko babes-sistemak izan beharko dituzte.

Lege-oinarria: 852 erregelamendua, II. eranskina, IX. kap., 4. puntua; etxebizitzetan, III. kap.





Jardueren Atal teknikoa  
Sección Técnica de Actividades

San Martín 48 - Tel. 943481000 - Faxe 943481144 - [www.donostia.org](http://www.donostia.org)  
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia, 2024ko urtarrila

Jardueren Atal Teknikoko burua  
Administratiboko burua

Jardueren Zerbitzu Juridiko-

Carmen López Ares

Marisa Irusta Pena

IK/  
P.2007/  
TEK/  
4008/  
TEL/  
01200  
697  
858n  
2006-  
06